## TOLOSAKO UDALA

*Tolosako Udal plangintza aholku batzordearen araudiaren behin betiko onespena, indarrean dagoena bertan behera utzi ondoren.*

Tolosako Udalbatzak, 2012ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen Araudiari, indarrean dagoena bertan behera utzi ondoren.

Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betiko onartutzat joko zela, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ezean.

Jendaurreko tramitean ez da alegaziorik aurkeztu, eta ondorioz araudia behin betikoz onartua geratzen da.

Dekretua behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra honako errekurtso hauek jar daitezke:

Administrazioarekiko auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Berraztertzeko errekurtsoa (aukerakoa) Alkatetzan, lehen aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabete baten barruan.

*Tolosako Udal plangintzako aholku batzordearen araudia*

Tolosako Udalak herritarrek udal gaietan parte hartzeko organo aholku emaile bezala eratu eta arautu nahi du Udal Plangintzako Aholku Batzordea. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 20. artikuluan eta ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera egingo du, bai eta 2005eko otsailaren 22ko ohiko osoko bilkuran jasangarritasuna lortzeko Europako Hirien Gutuna (Aalborg-eko Gutuna) onartutakoan bere gain hartutako konpromisoari jarraiki ere.

Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen helburuetako bat herritarrek hirigintzako gaietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea da. Horretarako, udalerri jakin batzuetan herritarrek egiturazko antolamendu plangintzetan eta Udal Plangintzako Aholku Batzordeetan parte hartu ahal izateko derrigorrezko programak sortu behar direla xedatzen du. Horrez gain, gogoan izan behar da herritarrek hirigintzako informazioa bere osotasunean jasotzeko eskubidea dutela, eta udaleko hirigintza plangintzak koherentea izan behar duela lurralde eta sektore antolamenduko bitartekoekiko.

Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 108. artikuluak ezartzen duenez, egiturazko antolamenduko edozer plangintza egiteko, aldatzeko edota berraztertzeko hasierako udal akordioaz gain, herritarrek parte hartzeko programa bat ere beharko dela derrigorrean. Udalerriaren ezaugarriak kontuan izanik finkatuko dira herritarrek zein elkarteek plangintza egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezko helburuak, estrategiak eta mekanismoak.

Mekanismo horien artean, hurrengoak izango dira:

a) Herritarrei irekitako bilkurak: Plangintzaren aurrerakinaren edukia azalduko da, bereziki hirigintzako erabaki estrategikoak eta espedientearen izapidetzean aurkeztutako balizko alternatibak.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Aprobación definitiva del reglamento del consejo asesor de planeamiento de Tolosa; tras la derogación del vigente.*

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 27 de marzo de 2012, aprobó inicialmente el Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Tolosa, tras la derogación del vigente.

En dicho acuerdo se estableció que caso de no presentarse alegaciones en el trámite de información pública se consideraría que el Reglamento queda aprobado con carácter definitivo.

Sometido el expediente a trámite de información pública no se ha presentado alegación alguna por lo que el Reglamento queda aprobado definitivamente.

La presente Resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrán interponerse los siguientes recursos:

Recurso Contencioso Administrativo, ante el Juzgado de los Contencioso Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Recurso de Reposición ante esta Alcaldía (con carácter potestativo), previo al Recurso señalado en el apartado anterior, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Reglamento del consejo asesor de planeamiento de Tolosa*

Al amparo de lo dispuesto en el art. 20 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de Bases del Régimen Local, así como a lo dispuesto en la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y según el compromiso adquirido por la Corporación Municipal en Sesión Plenaria Ordinaria de 22 de febrero de 2005, aprobando la Carta de las Ciudades Europeas hacia la sostenibilidad (Carta de Aalborg), se trata de constituir y regular el funcionamiento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, como órgano de participación ciudadana de naturaleza consultiva en materia municipal.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, establece entre sus objetivos la garantía del derecho a la participación ciudadana a través de la figura de los programas de participación ciudadana obligatorios en los planes de ordenación estructural y del Consejo Asesor del Planeamiento obligatorio en determinados municipios. Ello se suma al derecho a la información urbanística a través del aseguramiento de la integridad y de la coherencia del planeamiento urbanístico municipal respecto a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial.

La citada Ley en el artículo 108 establece que el acuerdo municipal de inicio de la formulación, modificación o revisión de cualquier figura de planeamiento de ordenación estructural deberá estar acompañado de un programa de participación ciudadana en el que, según las características del municipio, se establecerán los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar a los ciudadanos y ciudadanas y entidades asociativas el derecho a participar en el proceso de su elaboración.

Entre estos mecanismos figurarán:

a) Sesiones abiertas al público explicativas del contenido del avance, en especial de las decisiones estratégicas de construcción de la ciudad y las posibles alternativas presentadas en la tramitación del expediente.

b) Herri galdeketak: Plangintzak jasotako arloren batek herritarren artean eztabaida larriak eraginez gero, herri mailako galdeketak egiteko aukera izango da, toki araubideko oinarrizko legedia jarraituz.

c) Dibulgazioko materiala: Legeak eskatutako hirigintza arloko agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek gehiago hedatzeko eta hobeto ulertzeko.

Araudi honen bidez, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen oinarrizko egitura, funtzioak eta araubide juridikoa zehazten dira besteak beste, betiere kontuan izanik azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 22. artikuluan aurreikusitakoen moduko kide anitzeko organoa dela.

Bestalde, Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legea indarrean sartu aurretik izapidetzen hasi diren plangintzako tresnen kasuan, hurrengoa aurreikusi da: Aholku Batzordeak aurrerapeneko eta hasierako onarpeneko faseetan aurkeztu beharreko txostena dagokion plangintza tresna behin-behinean onartu ostean aurkeztea. Txostena espedienteari erantsiko zaio, behin betiko onar dadin.

Horiek horrela, ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeko 110. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako araudi hau onartzen da.

## I. ATALBURUA

## UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

*1. artikulua. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen sorrera.*

1. Ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 110. artikuluan ezarritakoarekin bat, Tolosako Udal Plangintzako Aholku Batzordea sortu da.

2. Aholku Batzordea informatzeko, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko gune iraunkorra izango da. Bertan, hirigintzako gaiak aztertuko dituzte Udalak, gizarte, ekonomia eta ingurumen eragileek eta, oro har, herritar guztiek.

3. Tolosako Udaleko partaidetzarako organo osagarria da Udal Plangintzako Aholku Batzordea eta bere helburua herritarrek eta elkarteek Udaleko gobernu organoen erabaki hartzeetan parte hartu ahal izatea da.

*2. artikulua. Atxikipena.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea hirigintzako eskumenak dituen udal arlora dago atxikita.

*3. artikulua. Izaera juridikoa.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak arautako organoen modukoa da, kide anitzekoa.

*4. artikulua. Funtzioak eta xedeak.*

1. Udaleko hirigintza antolamenduko edozer zehaztapenekin lotutako kontsultak, txostenak eta proposamenak egitea izango da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen xedea. Txostena derrigorrezkoa denean, ofizioz egin beharko du eta, ez denean, Udalak hala eskatuta.

2. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak hurrengo funtzioak bete beharko ditu bereziki:

b) Posibilidad de celebrar consulta popular municipal, según la regulación establecida en la legislación básica de régimen local, en caso de graves controversias ciudadanas sobre alguno de los aspectos incluidos en el plan.

c) Material divulgativo, que deberá prepararse junto con los documentos legalmente exigidos para los instrumentos urbanísticos, al objeto de facilitar su difusión y comprensión.

A través de este reglamento se determinan aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor de Planeamiento, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el art. 22 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Por otra parte, se prevé que, en el caso de instrumentos de planeamiento cuya tramitación se haya iniciado con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, que el informe a emitir por el Consejo en las fases de avance y de aprobación inicial se difiera a un momento posterior al de la aprobación provisional del instrumento de planeamiento que se trate, incorporando dicho informe al expediente para su aprobación definitiva.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 110 de la Ley 2/2006, de 20 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco se dicta el presente Reglamento.

## CAPITULO I

## NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 1. Creación del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.*

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo del País Vasco, se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Tolosa.

2. El Consejo Asesor se constituye como espacio permanente de información, debate y consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos, ambientales y de los ciudadanos, en general, en relación con la materia urbanística.

3. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal es un órgano local complementario de participación del Ayuntamiento de Tolosa con la finalidad de que asociaciones y colectivos ciudadanos puedan participar en la toma de decisiones de los órganos de gobierno del municipio.

*Artículo 2. Adscripción.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se adscribe al área municipal competente en materia de Urbanismo.

*Artículo 3. Naturaleza jurídica.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se configura como órgano colegiado de los regulados en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4. Funciones y fines.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal tendrá como objeto la consulta, el informe y la propuesta en relación con cualquiera de las determinaciones de ordenación urbanística municipal, de oficio, cuando el informe sea preceptivo, o a instancia del ayuntamiento cuando no lo sea.

2. En particular, corresponderá al Consejo Asesor de planeamiento municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

2.1. Hirigintzako udal informazioa jasotzea eta informazio hori inplikatuta egon daitezkeen herritarren elkarteei komunikatzea.

2.2. Beharrezkotzat jotzen denean, egiturazko antolamenduari eragiten dioten plangintza tresnen lehen formulazioko, berrikuste osoko, berrikuste partzialeko edota aldakuntza puntualeko espedienteen izapidetzea Udalari proposatzea edota premiatzea, ezinbesteko azterketa, eztabaida eta erabakitze prozesuaren ondorioz, era arrazoituan eta Aholku Batzordearen gehiengo kualifikatuaren (aholkulari batzordea osatzen duten kide legalen erdia gehi bat) babesarekin.

2.3. Herritarren parte hartzea sustatzea eta bermatzea, hirigintzarekin lotutako herri galdeketak proposatzea eta hirigintzako plangintza agiriek atxikita duten Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartzea, hala nola, beronen aurreikuspenak hobeto betetzen laguntzea.

2.4. Parte hartze prozesuetan genero berdintasuna bermatzea, aipatu prozesuetan emakumeen parte hartze aktiboa eta efektiboa sustatuaz, genero irizpideak hirigintzako plangintza agirien zati oinarrizkoa izan daitezen.

2.5. Herritarren parte hartzearekin eta hiri jasangarritasunarekin lotutako azterketak, txostenak eta proposamenak egitea Udalarekin elkarlanean, eta aipatutako arloetan Udala aholkatzea.

2.6. Elkarte eta erakundeek proposatutako hirigintza antolamenduko zehaztapenekin kooperatzea eta konpromisoa izatea sustatzea.

3. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen erabakiek eta proposamenek gomendio izaera izango dute Udaleko gobernu organoentzat. Edonola ere, gobernu organo horiek azalpenak eman beharko dituzte gomendioak aldatzen edota kontuan hartzen ez dituztenean.

Herritarren parte hartzearen bermatzaile den heinean, Aholku Batzordeak arlo horretan hartzen dituen erabakiak lotesleak izango dira. Aholku Batzordearen eskumena izango da Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartzea, berau derrigorrezkoa denean, aurretik berrikuspena edota aldaketa eska dezakeelarik, beti ere parte hartze handiagoa eta hobea sustatzeko helburuz. Aholku Batzordeak parte hartze prozesuak sustatu ahal izango ditu, baita derrigorrezkoak ez direnean ere, gizartearengan eragin berezia duten edota bereziki gatazkatsuak diren auzietan.

*5. artikulua. Aholku Batzordearen edukiak. Txostenak egitea.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Udalak landutako edota ezarritako hirigintzako plangintzako zein gauzatze faseko tresnak, azterketak, programak, zuzentarauak eta jarduera ildoak aztertu ahal izango ditu. Era berean, derrigorrean hartu beharko du parte egiturazko antolamenduari eragiten dioten plangintza tresnen lehen formulazioko, berrikuste osoko, berrikuste partzialeko edota aldakuntza puntualeko espedienteen inguruko kasuetan.

2. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateragarritasun Planaren egiturazko antolamenduaren lehen formulazioarekin, berrikuste osoarekin edo berrikuste partzialarekin zerikusia duten espedienteetan, baita Aholku Batzordeak berak proposatutakoetan ere, derrigorrezkoa izango da aipatutako plangintzaren aurrerakinaren edukiari buruzko aurretiazko txostena aurkeztea, baita plangintza horien hasierako eta behin betiko onarpen agiriena ere.

2.1. Recepción de información municipal en materia de urbanismo y comunicación y difusión de la misma a las entidades ciudadanas que pudieran resultar implicadas.

2.2. Proponer y/o instar al Ayuntamiento, como resultado del correspondiente proceso de análisis, debate y decisión, de manera razonada y por la mayoría cualificada (la mitad más uno de los miembros legales integrantes del consejo asesor) del Consejo Asesor, la tramitación de cuantos expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento de carácter estructural se consideren necesarios.

2.3. Promover y garantizar la participación ciudadana, proponer consultas populares sobre asuntos de índole urbanística y aprobar el Programa de Participación Ciudadana anexo a los documentos de planeamiento urbanístico, así como coadyuvar al mejor cumplimiento de las previsiones del mismo.

2.4. Garantizar la igualdad de género en los procesos de participación, promoviendo la participación activa y efectiva de las mujeres en dichos procesos, de manera que los criterios de género sean parte fundamental de los documentos de planeamiento urbanístico.

2.5. Colaboración y asesoría al Ayuntamiento en la realización de estudios y emisión de informes y propuestas sobre la participación ciudadana y la sostenibilidad urbana.

2.6. Promoción e impulso de la colaboración y el compromiso de las diversas asociaciones y entidades en las determinaciones de ordenación urbanística propuestas.

3. Las decisiones y propuestas del Consejo Asesor de planeamiento municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, pero estos tendrán que dar una respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que sean desechadas o modificadas.

En su calidad de garante de la participación ciudadana, las decisiones del Consejo Asesor en ese ámbito tendrán carácter vinculante. Será competencia del Consejo Asesor la aprobación del Programa de Participación Ciudadana, cuando éste sea preceptivo, pudiendo previamente instar a su revisión y/o modificación, siempre con el objetivo de promover una mayor y mejor participación. El Consejo Asesor podrá también promover procesos de participación, aún no siendo preceptivos, en casos de especial incidencia y/o conflictividad social.

*Artículo 5. Contenidos del Consejo Asesor. Emisión de informes.*

1. El Consejo Asesor de planeamiento municipal podrá conocer de cuantos instrumentos de planeamiento y ejecución urbanística, estudios, programas, directrices y líneas de actuación elabore o establezca el Ayuntamiento e informará, en todo caso y con carácter preceptivo, en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento que afecten a la ordenación estructural.

2. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización, incluidos aquellos propuestos por el propio Consejo Asesor, será preceptiva la emisión de informe previo respecto al contenido del documento de Avance y respecto a los documentos de aprobación inicial y provisional de los citados planeamientos.

3. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edota Bateragarritasun Planaren aldakuntza puntualeko espedienteetan, derrigorrezkoa izango da proposaturiko agiriaren edukiari buruzko txostena aurkeztea, hasierako onarpena emateko. Plangintzaren aurrerakin dokumenturik egonez gero, bere edukiari buruzko txostenak aipaturiko planteamenduei hasierako onarpena emateko agiriari buruzko txostena ordezkatu ahal izango du.

4. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak, derrigorrean esku hartu behar duen espedienteen kasuan, gehienez ere hilabeteko epea izango du bere txostena aurkezteko, Batzordeak artikulu honetako aurreko zenbakiek aipatutako dokumentua aztertu duen bileraren datatik abiatuta.

5. Udalak, hirigintza espedientea behin betiko onartzen duen ekitaldian, azalpenak eman beharko ditu, Aholku Batzordeak planteatutako irtenbidea zergatik ez duen hartu adierazteko.

6. Aipatutako txostena ez bada ezarritako gehieneko epearen barruan aurkezten, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango dute berau onartzeko ardura duten udal organoek, nahiz eta Udalak Aholku Batzordea premiatuko duen txostena aurkez dezan espedientea behin betiko onartzen duen ekitaldia baino lehen eta edozer kasutan, hartarako derrigorrezkoa izango da

7. artikulu honetako 1. eta 2. ataletan zerrendatutako edozer espediente abiaraziz gero, Udalak ofizioz emango die horren berri zinegotzi ez diren Aholku Batzordeko kideei.

## II. ATALBURUA

## UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAKETA

*6. artikulua.*

1. Honako hauek izango dira Udal Plangintzako Aholku Batzordeko kideak:

a) Alkatea, Batzordeko lehendakaria izango dena.

b) Hirigintza Batzordeko lehendakaria den zinegotzia, edo bestela, beronek ordezkotzat aukeratzen duen batzorde bereko zinegotzia, Aholku Batzordeko 1. lehendakariordea izango dena.

c) Garapen ekonomikoko Batzordeko lehendakaria den zinegotzia, edo bestela, beronek ordezkotzat aukeratzen duen batzorde bereko zinegotzia, Aholku Batzordeko 2. lehendakariordea izango dena.

d) Udalean ordezkaritza duen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana, baita azken udal hauteskundeetan emandako bozka baliagarrien %1 gutxienez lortu duten hautagaitzen ordezkari bana ere, hala eskatuko balute.

e) Udalerriko merkatari elkarteen ordezkari bat.

f) Udalerrian sustraituta dauden enpresari elkarteen ordezkari bat, hala eskatuko balute.

g) Udalerrian sustraituta dauden erakunde sindikal bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

h) Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkari izango den arkitekto bat.

3. En los expedientes referentes a la modificación puntual de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento propuesto para la aprobación inicial En el caso de existir documento de Avance, el informe sobre el contenido del mismo podrá sustituir el informe sobre el documento para la aprobación inicial de los citados planeamientos.

4. El Consejo Asesor de planeamiento municipal, en los expedientes en que su intervención sea preceptiva, deberá emitir su informe en el plazo máximo de un mes a partir de la celebración de la sesión del Consejo en el que se trate el documento de trámite a que se refieren los números anteriores del presente artículo.

5. En el acto de aprobación definitiva del expediente urbanístico deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

6. La no emisión del citado informe en los plazos máximos establecidos habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación a proseguir con la tramitación del expediente, si bien el Ayuntamiento instará al Consejo Asesor a su emisión previa al acto de aprobación definitiva, para la cual será preceptiva.

7. El Ayuntamiento informará de oficio a los miembros no concejales del Consejo Asesor del inicio de cualquier expediente de los relacionados en los apartados 1. y 2. del presente artículo.

## CAPITULO II

## COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 6.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento estará compuesto por los siguientes miembros:

a) El alcalde o la alcaldesa, que ostentará la presidencia.

b) El o la concejal que presida la comisión de urbanismo, o en su defecto, el o la concejal de la misma comisión en quien delegue, que ostentará la vicepresidencia 1.ª

c) El o la concejal que presida la comisión de desarrollo económico, o en su defecto, el o la concejal de la misma comisión en quien delegue, que ostentará la vicepresidencia 2.ª

d) Un o una representante de cada partido político con representación en el Ayuntamiento, así como de aquellas candidaturas que hayan obtenido al menos el 1% de los votos válidos emitidos en las últimas elecciones municipales y que así lo soliciten.

e) Un o una representante de las asociaciones de comerciantes de ámbito municipal.

f) Un o una representante de las asociaciones de empresarios/as con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

g) Un o una representante por cada una de las organizaciones sindicales con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

h) Un o una arquitecto en representación del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

i) Udalerrian sustraituta dauden elkarte ekologista edo anbientalista bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

j) Udalerrian sustraituta dauden emakume elkarte bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

k) Udalerrian sustraituta dauden gazte elkarte bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

l) Udalerrian sustraituta dauden minusbalioa duten pertsonen elkarte bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

m) Tolosaldeko Mendi Nekazaritza Elkarteko (Tolomendi) ordezkari bat.

n) Eskolako Agenda 21eko ordezkari bat.

o) Erretengibel, SAko ordezkari bat.

p) Aurreko puntuetan jasotzen ez diren eta legalki osatuak diren kultura, gizarte, kirol edo auzo izaera duten elkarte bakoitzeko ordezkari bana, hala eskatuko balute.

6.2. Batzordeak lan batzorde edo talde espezifikoetan antolatu ahal izango du bere funtzionamendua, aztertu behar dituen gaien arabera.

*7. artikulua. Batzordekideen ordezkaritza.*

1. Aurreko artikuluan aipatutako erakundeek zein elkarteek euren hautagaiak aurkeztuko dituzte.

2. Postu bakoitzerako titular bat eta ordezko bat izendatuko dira.

3. Aholku Batzorde honetarako ordezkaritza izendatu ahal izateko, erakundeek Tolosako Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta egon beharko dute edo bestela, azken 5 urteetan Udalerrian txertatuak egon izana egiaztatu beharko dute.

4. Lehendakariak, lehendakariordeetako batek edota batzarkideen erdiak hala eskatuz gero, hurrengoek ere parte hartu ahal izango dute Aholku Batzordean, bertako kide ez izan arren –hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa–:

— Hirigintzako planak egiteko ardura duten teknikariek.

— Hirigintzan, Ingurumenean edota gai ordenarekin erlazionaturiko edozein jakintza esparrutako adituak diren pertsona entzutetsuek.

— Edonola, Udalaren beraren teknikoak, batik bat, hirigintza, garapen ekonomikoa eta parekidetasun sailei atxikitakoak, gai ordenarekin erlazionaturiko edozein jakintza esparrutan jarduten direnez gain.

*8. artikulua. Kontseiluko batzordekide titularren izendapena eta kargu uztea.*

1. Aholku Batzordeko batzordekideak alkateak izendatuko ditu, dekretu bidez. Izendapen proposamena jarraian datozen puntuetan ezarrita dagoen bezala egin beharko da.

2. Batzordekide titular izendatu ahal izateko, beraiek aldez aurretik eman beharko dute onarpena.

3. Udaleko zinegotziak diren batzordekide titularrek galdu egingo dute kargua udalbatzaren agintaldia amaitzen denean.

i) Un o una representante por cada una de las asociaciones ecologistas o ambientalistas con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

j) Un o una representante por cada una de las asociaciones de mujeres con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

k) Un o una representante por cada una de las asociaciones de jóvenes con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

l) Un o una representante por cada una de las asociaciones de personas con discapacidad con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

m) Un o una representante de la asociación «Tolosa Aldeko Mendi Nekazaritza Elkartea (Tolomendi)».

n) Un o una representante de Agenda Escolar 21.

o) Un o una representante de Erretengibel, S.A.

p) Un o una representante por cada una de las asociaciones legalmente constituidas de carácter cultural, deportivo, social y/o vecinal con implantación en el municipio y que así lo soliciten.

6.2. El Consejo podrá organizar su funcionamiento en base a comisiones o grupos específicos de trabajo en función de los temas que sean objeto de su consideración.

*Artículo 7. Representación de los vocales.*

1. Las entidades y asociaciones citadas en el artículo precedente presentarán sus candidatos.

2. Se designará por cada puesto un titular y un suplente.

3. Para poder designar representantes en el Consejo, las entidades asociativas deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones o, en su defecto, acreditar su implantación en el municipio con una antigüedad mínima de 5 años.

